

2006KO EKAINAREN 6KO **TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko ekainaren seian, arratsaldeko zazpi terdie-tan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zume-laga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Azertu ondoren 2006ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 5 zbk.-dun fakturen zerrenda, BERREHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI euro eta LAUROGEITA BAT zentimo (249.999,81 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

II.- UDALETXEKO BIRMOLDAKETA LANEN 2. FASEKO 4. ZERTIFIKAZIOA.-

Jarraian IKENA 2001 S.L. enpresa burutzen ari den Udaletxeko birmoldaketa lanen bigarren fasearen laugarren zertifikazioa aurkezten da bere onarpenerako. Zertifikazio honen zenbatekoa LAUROGEITA HAMABOST MILA EHUN ETA HIRUROGEITA SEI euro eta BERROGEI zentimo (95.166,40 €)takoa da eta udal arkitekto teknikoaren oneritzia dara-ma.

Honen aurrean eta zertifikazio hau azertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena azertu ondoren, Go-bernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 135 zbk.dun esped.: astean bi orduko zerbitzua ematea. Onuradunaren ekarpena zerbi-tzu kostuaren %2koa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 161 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenduko gastuak ordaintzeko laguntzetatik baja ematea, 2006ko maiatzaren 31n, elkarbizitza unitatean aldaketak egon direlako.

- 737 zbk.dun esped.: honako laguntzak ematea:

- Etxebizitzaren errenta ordaintzeko hilean 160,00 €, apiriletik urrira.
- Betaurrekoak erosteko 114,00 € ematea.

Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

Telealarma zerbitzua.-

- 30 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja ematea 2006ko maiatzaren 24an, onuradunak berak hala eskatuta.

Udal tasak ordaintzeko laguntzak.-

2005 urteko udal tasak ordaintzeko laguntzak emateko arautegiaren arabera eta egindako deialdian aurkeztutako eskariak ikusi eta aztertu ondoren, ondorengo laguntzak ematea:

<u>IZEN ABIZENAK</u>	<u>EHUNEKOA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>
Bermejo Fernandez, Angeles. Esp.Zbk:9	%50	69,71 €
Carrion Villanueva, Gregorio. Esp. Zbk:10	%100	219,63 €
Imaz Irastorza, M ^a Pilar. Esp. Zbk:1	%75	129,43 €
Irastorza Irazusta, Teresa. Esp.Zbk:5	%75	98,51 €
Lopez Sánchez, Florencia. Esp. Zbk:8	%100	202,72 €
Martinez Ganuza, Jose Luis. Esp. Zbk:2	%75	98,43 €
Marzo Rada, Cencepción. Esp. Zbk:6	%50	95,55 €
Perez Garcia, Maria. Esp. Zbk:3	%50	56,76 €
San Roman Rubio, Jose Luis. Esp. Zbk:4	%100	152,57 €
Zufiria Esteibar, Pilar. Esp. Zbk:7	%75	85,86 €

IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZA.-

Lazkao Kirol Elkarteko Futbol Sailak Harizti Haundi futbol zelaiko ohiko mantenu lanak egiten ditu eta lan horiengatik dirulaguntza jasotzen du. Aurtengoan ordea, eta futbol zelaiaren egoerak hala eskatzen duelako, ohiko mantenu lanetatik gain futbol zelaiaren zulatze, ondarra botatze, hazia ereite eta ongarria botatze lan bereziak egingo ditu eta, ez-ohiko dirulaguntza eskatu du.

Hori dela eta, eta Kiroletako Batzordearen proposamenez, Tokiko Gobernu Batzararak, lan horiek aurrera eramateagatik Lazkao Kirol Elkarteari sei mila (6.000 €) eurotako dirulaguntza ematea erabakitzen du.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.